

## **San Martingo hariztiaren egoera aztertzeko eta egungo oinezko bidea birgaitzeko eskatu dio Oñatiko EAJ-PNVk EH Bilduren udal gobernuari**

- **Azterketa objektibo baten beharra azpimarratu du udal taldeak; izan ere lurzorua landare-estalkiak higadura seinale argiak ditu eta horrek zuhaitzen osasuna arriskuan jartzen du, baita, ondorioz, bertatik igarotzen diren oinezkoen segurtasuna ere.**
- **Era berean, San Martingo hariztiz haratago, azterlan hori bera gainerako udal zuhaitzietara zabaltzea proposatu dio EAJk udal gobernuari, hala nola Bereazoa, Asentzio, Olapoto, Ugarkalde, Beletxa... Helburua da horien egoeraren diagnostia egin eta zuhaitzen osasuna zaindu eta horiek herritarrentzako atsegina izan daitezen egin beharreko ekintzak identifikatzea.**

Oñatiko San Martin parkea udalerriko harizti adierazgarri eta nagusietakoa da eta balio handia du Oñati zein oñatiarrentzat. Hala ere, azken urteotan, honen egoerak nabarmen egin du okerrera. Hori aintzat hartuta eta ingurumenaren eta, bereziki, herriko eremu naturalak zaintzearen aldeko apustuan, parkearen egungo oinezko bidea birgaitzea eta hariztiaren egoerari buruzko azterlan objektibo bat egitea eskatu dio Oñatiko EAJ-PNVk EH Bilduren udal gobernuari. Azterketa horren emaitza gisa, parkea egoera onean mantentzeko egin beharreko ekintzak identifikatu eta ezarri ahal izango dira. Finantzazio iturri gisa, EAJ-PNVk udal gerakina erabiltzea eskatu du oraingoan, herritarrentzat aparteko kosturik eragin gabe.

Gaur egun, parkeak oinezkoentzat bide bat du, iraganezina eta oso egoera txarrean dagoena. Horren ondorioz, herritarrak belarretatik ibiltzen dira. "Eguraldi onarekin eta oinezko mugimendu gutxiarekin, ez dago arazo handirik; baina, San Martin auzo berria eta auto-karabanen parkearen ingurua direla eta, eremuko zirkulazioa nabarmen handitu da. Ondorioz, jende gehiago pasatzen da parkeko belarditik eta horrek belarra altxatzea, lokatza agertzea, lurra trinkotzea eta, are gehiago, landare-estalkiko lurzoru emankorra eramaten dute errekatxo txikiak ere sortzea eragin du, zuhaitzen sustraiak agerian utziz. Laburbilduz, horrek guztiak lurpeko landare-estalki hori higatzea eragiten du, zuhaitzen aireko eta lurpeko aldearen arteko oreka hautsiz", azaldu du Andoni Altuna udal taldeko ingurumen zinegotziak.

Hori dela eta, EAJ-PNVk egungo bidea birgaitzeko eskatu dio EH Bilduren udal gobernari, baita parkearen egoera objektiboki aztertzeko ikerketa bat egitea ere, emaitzak aztertu eta parkearen egoera ona bermatuko duen plana definitzeko. Proposamen honen bitartez, EAJ-PNVren udal taldearen helburua da parkearen osasun eta egoera ona bermatzea eta, horrela, oñatiarrei kalitatezko espazio publiko irisgarri eta segurua eskaintzeko.

Era berean, azterketa hori bera gainerako udal parkeen inguruan egitea eskatu dio, hala nola, Bereazoa, Beletxa, Olapoto, Ugarkalde, Asentzio...

"San Martin parkearen hondatze eta narriadura argia ikusita, eta horrek parkearen zaintzan eragiten dituen kalteak zein herritarren segurtasunerako dakartzan arriskuak jakinik, EH Bilduren udal gobernua gure eskaera kontuan hartzea espero dugu oraingoan, Oñatiko eremu naturalen mesederako eta oñatiarren segurtasuna eta ongizatea bermatzeko", amaitu dute Oñatiko EAJ-PNVtik.

## **EAJ-PNV de Oñati pide al gobierno local de EH Bildu un estudio del estado del robleal de San Martín y la rehabilitación del actual vial existente**

- **El grupo municipal incide en la necesidad de un estudio objetivo, ya que la cubierta vegetal del suelo presenta síntomas de erosión, poniendo en riesgo la salud de los árboles y, por ende, la seguridad de las personas que transitan por él.**
- **Asimismo, y más allá de San Martín, propone al equipo de gobierno extender este mismo estudio al resto de las arboledas municipales, como Berezaio, Asentzio, Olapoto, Ugarkalde, Beletxa, .... con el fin de diagnosticar su estado e identificar las acciones requeridas para preservar su salud y hacerlos más acogedores para la ciudadanía**

El parque San Martín de Oñati es el robleal emblemático del municipio y posee un alto valor para Oñati y las y los oñatiarras. No obstante, durante los últimos años, su estado ha ido deteriorándose, por lo que, en su firme apuesta por el cuidado y la preservación del medio ambiente y en especial, de las zonas naturales del municipio, EAJ-PNV de Oñati ha solicitado al gobierno local de EH Bildu que rehabilite el actual vial del parque y realice un estudio objetivo sobre la situación del robleal. A raíz del análisis del diagnóstico de dicho estudio, se podrán establecer las acciones que garanticen el óptimo mantenimiento del parque. Como instrumento de financiación, EAJ-PNV esta vez ha solicitado que se utilice el remanente municipal, no suponiendo ningún coste extra para la ciudadanía.

Hoy en día, el parque cuenta con un vial para el tránsito de personas, intransitable y en muy mal estado de conservación. Como consecuencia de ello, la ciudadanía camina por la hierba. “Con buen tiempo y poco tránsito, esto no supone un gran problema, sin embargo, debido al nuevo barrio de San Martín y a la zona del parque de auto caravanas, el tránsito ha incrementado notablemente, por lo cual, con tantas pisadas, es inevitable que se levante la hierba, aparezca barro, compacte el suelo e incluso se generen pequeños riachuelos que arrastran suelo fértil de la cubierta vegetal, quedando visibles las raíces de los robles. En definitiva, todo ello hace que se erosione dicha cubierta vegetal del suelo, quebrándose el equilibrio entre la parte aérea y la subterránea de los árboles”, explica Andoni Altuna, concejal de medioambiente del grupo municipal.

Por todo ello, EAJ-PNV ha pedido al gobierno de EH Bildu que rehabilite el actual vial y ahora, pide también que se estudie objetivamente el estado del parque, con el fin de analizar sus resultados y establecer un plan óptimo que avale su conservación. De este modo, el objetivo del grupo municipal de EAJ-PNV no es otro que garantizar la buena salud y el buen estado del parque y ofrecer así, a las y los oñatiarras, un espacio público accesible, seguro y de calidad.

Asimismo, ha extendido esta misma petición al resto de parques del municipio, solicitando al gobierno de EH Bildu un estudio sobre el estado de todos ellos: Berezaio, Beletxa, Olapoto, Ugarkalde, Asentzio...

“Esperamos que, en vista del claro deterioro del parque de San Martín y del riesgo que ello supone para su preservación y para la seguridad de la ciudadanía el gobierno municipal de EH Bildu tenga en cuenta nuestra solicitud y la lleve a cabo por el bien de las zonas naturales de Oñati y la seguridad y el bienestar de las y los oñatiarras”, han concluido desde EAJ-PNV de Oñati.